



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko uztailaren 30etik abuztuaren 3rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisia


uroguneko urte arteko inflazio-tasa % 2,1ekoa izan zen uztailean, aurreko hileko irakurketa baino hamarren bat gehiago, prezioen igoerarik handiena 2012ko abendutik, Eurostatek argitaratutako tariko aurreikuspenen arabera. Prezioen gorakadak energiaren kostuaren % 9,4ko igoera islatzen u, ekainean izan genuen urte arteko % 8ko goraldiaren aldean, baita zerbitzuen % 1,4ko arestitzea ere, aurreko hileko igoera baino hamarren bat gehiago. Elikagai freskoen prezioek, ldiz, % 2,6 egin zuten gora, ekaineko % 2,9aren aldean. Euroguneko azpiko inflazio-tasa % 1,1era itsi zen uztailean, aurreko hileko % 0,9tik.

Adierazlearen azalpena

Pla hilerok prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen ituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "rosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta atez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak errialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: BPGd



Datuaren analisisia

uroguneko BPGd-a % 0,3 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan (% 0,4 lehen hiruhilekoan), ariko lehen aurreikuspenen arabera. Urte arteko kopuruetara ekarrita, BPGd-a % 2,1 igo zen. 2018ko urtarriletik martxora, eta urte bat lehenagoko epe berarekin alderatuz, Euroguneko ekonomia % 2,5 hazi zen.

Adierazlearen azalpena

urostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta azkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BoE ETA PMIak



Datuaren analisisia

Erresuma Batuan, fabrikek indarra galdu zuten uztailean, fabrikatzaileei eginiko inkestaren abera, are ezkorrago agertu zirenak. Fabrikazioaren PMIa 54,0raino jaitsi zen ekaineko 54,3tik, baina zena baino beherago. Sektoreak, ekonomia britaniarraren % 10a, ez dio bultzada nabarmenik eman aurtengo hazkunde ekonomikoari. Uztaileko zerbitzuen PMIak, bestalde, ez duen merkatuko aurreikuspenak bete, Brexitaren inguruko ziurgabetasunak negozio berrien sorrera geldiarazi zuelako akaso. Gainera, Ingalaterrako Bankuak % 0,5etik % 0,75era igo zituen interes-tasak, eta igoera gehiago izan daitezkeela aurreratatu zuen; hori bai, Mark Carney Gobernadorearen hitzetan, igoera horiek "mugatuak eta mailakatuak" izango dira.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei egiten zaizkien inkesta bat du oinarri, eta fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren goera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratatu bat da, eta emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

Ingalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika ezahazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren banku zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisisia


EBek 157.000 lanpostu berri sortu zituen uztailean, espero zena baino askoz gutxiago (193.000). Alia ere, aurreko hilabeteetako goranzko berrikusteak (59.000) ezusteko negatiboa orekatzea lortu zen. Gainera, langabezia-tasa % 3,9an mantendu zen, eta parte-hartze tasak ez zuen ia aldaketarik egin. Orduko batez besteko irabaziak urte arteko % 2,7koak izan ziren, aurreikuspenekin bat etorritik.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilero argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko eronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu giteke. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM



Datuaren analisisia

ztaileko manufakturen ISMak, nahiz eta oraindik maila altuetan egon, espero zena baino gehiago jin zuen behera, 58,1 punturaino, merkatuak 58,4 punturaino soilik jaitea aurreikusi bazuen ere. zerbitzuen ISMak ere espero zena baino gehiago egin zuen behera, eta bere mailarik baxuenean irakatu zen 2017ko abuztutik. 55,7 puntutara, hain zuzen ere, ekaineko 59,1etik eta merkatuak aurreikusitako 58,6tik. Osagaiei begira, eskari berrien eta ordaindutako prezioen indizeen datuak uste zuten eskasagoak izan ziren; enpleguarenak, aldiz, pixka bat hobera egin zuten.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei eraso egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan aldetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den eurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek torkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-rena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik aurrerakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FED



Datuaren analisia

Estatu Batuetako Banku Zentralak gidoia jarraitu zuen, eta interes-tasak egonkor mantendu zituen, baina igoera irailerako atzeratuz. Aurreko bilerari dagokionez, ez zen nobedade handirik izan, maila makroan tonu positiboa izan zuela besterik ez. Erakundearen arabera, jarduera ekonomikoa tasa baxuetan hazten ari da oraindik, eta langabezia-tasak baxu jarraitzen du. Gainera, familien gastuak eta enpresen inbertsioek oso indartsu jarraitzen dute.

Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren gonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, diru-erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BOJ ETA INDUSTRIA-EKOIZPENA

JNIPYOY Index (Japan Indices of Industrial Production: Production YoY NSA)

Bloomberg



Datuaren analisisia

Industria-ekoizpenak % 2,1 egin zuen atzera uztailean, aurreko hilaren aldean, eta, beraz, elkarren gidako bigarren jaitsiera izan zen. 2017ko hil berarekin alderatuta, indizeak % 1,2 egin zuen herara.

Japoniako Bankuak bere diru-politikan aldaketarik ez egitea erabaki zuen. Nolanahi ere, doikuntza-urriak ezarriko dituela iragarri zuen, estatu-bonuen erosketen malgutasuna handitzeko, besteak beste. Horrez gain, Forward Guidance bat ezarri zuen tasa-kontuetan, epe luzez egonkor antenduko direnaren adierazgarri.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Konomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

Japoniako Banku Zentrala da **BoJ**. Banku-sistema osoa kontrolatzen du, nahiz eta herrialde industrializatuetakoko banku zentral gehienek baino autonomia txikiagoa izan. Horra bankuaren enbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea, diru-politika egitea, datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta ikerketa jarduerak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMIak



Datuaren analisia

anufakturen industria are gehiago hoztu zen uztailean, eta PMIa 51,2 punturaino jaitsi zen, ainean baino hiru hamarren gutxiago, gerra komertzialaren eta baldintza meteorologikoen dorioz. Argitaratutako datua analisten aurreikuspenen azpitik badago ere, elkarren segidako geita laugarren hilabetez mantendu da 50 puntuen atalasearen gainetik.

inako Caixin zerbitzuen PMIa azken lau hileko erritmorik ahulenean hazi zen (52,8 vs 53,9). sagaiei begira, etorkizunarekiko konfiantzaren indizeak historiako bigarren daturik kaskarrena lortu en, eta inkestan parte hartu zutenek enpresen berregituratzeak eta Estatu Batuen eta Txinaren eko gerra komertzialak sortutako kezkei bota zieten errua.

Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei anufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. abrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten ilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua Oetik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, konomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazl ea	Aurreik.
08/06	Alemania	MoM fabriken aginduak	-% 0.4
08/06	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	12.8
08/07	Alemania	Balantza komertziala	20.8b
08/07	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.5
08/07	Frantzia	Balantza komertziala	-5600m
08/08	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	¥822.0b
08/08	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	--
08/08	Txina	Balantza komertziala	\$39.05b
08/09	Eurogunea	EBZren hileko buletina	0
08/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	220k
08/09	Estatu Batuak	MoM IPP elikagairik eta energiari gabe	% 0,3
08/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.0
08/10	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0,3
08/10	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.4
08/10	Frantzia	MoM manufaktura-ekoizpena	--
08/10	Italia	Balantza komertziala guztira	--
08/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£2500
08/10	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0,3
08/10	Erresuma Batua	MoM manufaktura-ekoizpena	% 0,3
08/10	Erresuma Batua	BPGd (MoM)	% 0,2
08/10	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.4
08/10	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0,2

JRTSA:

iera negatiboak Europan eta Asian, mistoak gorakorretan a positiboak AEBetan. Enpresen emaitzak argitaratzen raitzen duten honetan, Txinaren eta AEBen arteko tsio komertzialen gorakadak, Banku Zentralen bilerek a zor italiarraren portaerak indizeen bilakaera baldintzatu ten. AEBek Txinari egindako eskakizunak erantzun gabe zi zirenez, Trumpek Txinaren kontrako muga-zergak gortu zituen (% 10etik % 25era igo zituen 200.000 miloi larretan balioztatutako inportazioen gaineko tarifak), eta dorio negatiboak ekarri zituen, Asiako burtsetan batez a. Bestalde, Japoniako, AEBetako eta Ingalaterrako nku Zentralen bilerak egin ziren. Boj-ek hasieran uste enak baino aldaketa zuhurragoak proposatu zituen bere strategiaren barruan. Erreserba Federalak, bestalde, rreikusitako gidoia bete zuen, eta, horrenbestez, ez zuen eraginik izan burtsetan. BoE ingelesa izan zen interes- sak aldatu zituen bakarra (% 0,5etik % 0,75era), itzordearen ahobatezko erabakiz. Italian, gobernuak rrekontu-gaiak eztabaidatzeko bilera bat egingo zuelako rrumurruak erne jarri zituen Europako inbertitzaileak, eta lmentak gailendu ziren errenta aldakorreen. Enpresen raitzei begira (dagoeneko S&P eta Eurostoxx indizeen tuen % 60 ezagutzen ditugu), hazkundera bi digitukoa n zen bi guneeetan, % 25ekoa eta % 12koa, hurrenez rren. Azpimarratzekoa da Apple enpresak eskuratu uen emaitza onak. Bada, horrek eragina izan zuen inerako teknologien portaeran.

ERRENTA FINKOAK:

astean hegazkortasuna izan zen nagusi, eta zor liarraren errentagarritasunaren gorakada izan zen oagarriena, koalizio gobernuaren barruko tentsioek agindakoa. Horrek Espainiako arrisku-primaren inditzea ekarri zuen, 101 op-raino. "Core" zorrak ia jaketarik gabe amaitu zuen astea Atlantikoaren bi deetan. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu uen.

BISAK/LEHENGAIK:

riskuarekiko nolabaiteko beldurra nagusi izan zen jurunean, dolarraren indarrak dibisa estatubatuarra teko maximoetatik hurbil utzi zuen, euroaren eta liberaren rrean, BoE-ren tasen igoera gorabehera. Ingalaterrako u-erakundeak zuhurtziaz jokatu zuen Erresuma Batuan atekoa den tasen gorakadari buruzko lagungaririk ez rrateko, eta horrek liberaren ahultzea ekarri zuen. hengaietan, petrolio gordinaren asteko inbentarioen rakadak eta mundu osoko eskaintzaren handitzeak trolioaren prezioaren jaitsiera eragin zuten.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Eur)	189,90	0,51	6,16
IBEX 35	9.739,80	-1,30	-3,03
DJ EURO STOXX 50	3.482,40	-1,27	-0,62
DJ STOXX 50	3.136,16	-0,84	-1,31
FTSE	7.659,10	-0,55	-0,37
S&P 500	2.840,35	0,76	6,24
Dow Jones	25.462,58	0,05	3,01
NASDAQ	7.812,02	0,96	13,16
NIKKEI 225	22.525,18	-0,83	-1,05
MSCI GORAKORRAK (Eu)	363,73	-1,21	-4,01
MEXBOL	49.302,57	-0,69	-0,11
BOVESPA	81.434,98	1,96	6,59
SHANGHAI	2.869,92	-4,64	-17,14
Errusia Rts Mosku	1.145,08	-0,58	-0,81

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,59	0,01	0,04
ESPAINIA 2 URTE	-0,29	0,03	0,06
AEB 2 URTE	2,64	-0,03	0,76
ALEMANIA 10 URTE	0,41	0,00	-0,02
ESPAINIA 10 URTE	1,42	0,05	-0,15
AEB 10 URTE	2,95	-0,01	0,54
ALEMANIA 30 URTE	1,06	0,00	-0,20
ESPAINIA 30 URTE	2,51	0,04	-0,34
AEB 30 URTE	3,09	0,01	0,35

Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	63,95	3,06	19,03
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	293,64	13,47	61,21

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Dolarra / Euroa	1,16	-0,69	-3,64
Yena / Euroa	128,71	-0,59	-4,83
Libera / Euroa	0,89	0,06	0,23

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Petrolio (Brendt)	72,82	-1,29	8,98
Urrea	1.213,65	-0,79	-6,86



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.